310.59. Kontagailuen parkea

Kontagailuak artatu eta alokatzeagatiko kanonak, jarritako unitateen aurreikuspenaren eta indarrean dauden lehiaketen arabera kalkulatu dira. 3.937.640,95 eurotan aurrikusten da.

4.- Beste diru-sarrera batzuk

392.01. Premiamenduzko gainordainak

2016rako, 247.293,27 euroko eskubideak likidatzea aurrikusten da.

399.01. Enpresen konturako iragarkiak

62.425,42 euroko aurrekontua.

399.02. Diru-bilketagatiko sariak

Aurreikusitako eskubide onetsiak 1.714.955,72 eurokoak dira.



399.04. Udalen ekarpena bertako baliabideen ustiapenagatik

1.407.000,00 euro aurreikusi dira.

399.05. Udalen ekarpenak udal-proiektuengatik

Aurreikuspenen arabera, kontzeptu honetan sortutako gastuaren %50 fakturatuko zaie udalei. Beraz, 42.000 eurokoa izango da aurrekontua.

399.06. Arriandiko HUAren ustiapena

Azpikontzeptu honetan Berrizi likidatutako zenbatekoak azaltzen dira, 2006-01-12an sinatutako hitzarmenean zehaztutako prezioen arabera.

Hitzarmen horretan xedatutakoaren arabera, aurrekontua 180.306,00 eurokoa izango da.

399.10. Mañaria-Ermuko hoditeriaren ustiapena

Aurreikuspenen arabera, 154.000,00 euro fakturatuko zaie Berriz, Ermua eta Mallabiari.

399.11. Undurragako zentraleko energia elektrikoa

Aurrekontuan, sortutako energia saltzean aurreikusitako diru-sarrerak azaltzen dira (256.478,67 euro).

399.12. Galindon batera sortutako energia elektrikoa

Aurreikuspenen arabera 3.000,00 euro fakturatuko zaizkio Iberdrolari.

399.13. Zerbitzuak eta kanonak, kanpoko operadore moduan

Azpikontzeptu honetan, ekitaldiko diru-sarreraren aurreikuspena 75.000,00 eurokoa izango da, Partzuergoak Argentinan eta Uruguain likidatzen ari diren sozietateetan egingo dituen jarduketengatik.



4. KAPITULUA.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Ur Agentziarekin sinatutako hitzarmenaren ondorio, Partzuergoak Uraren Kanonaren Kudeaketa Arruntagatik 60.000,00 euroko sarrera jasotzea aurrikusten da.

5. KAPITULUA.- ONDARE-ARLOKO DIRU-SARRERAK

Banku-erakundeetako gordailuen interesen eta Euskobonoek sortutako interesen ondorioz sortutakoak dira, eta, aurreikuspenen arabera, 830.982,42 eurokoak izango dira 2016an.

7. KAPITULUA.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK

Bizkaiko Foru Aldundiak hornikuntza eta saneamendu lanen finantziazioan parte hartzen du, 40.000.000,00 euroko zenbatekoan, sinatutako Hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera (2008-2018).

Bestalde, Partzuergoak hitzarmena sinatu du Bilboko Portu Agintaritzarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin, "Bilboko portuaren inguruan isurketa-puntu bakarra duen hutseko saneamendu sarearen alternatibaren aurreproiektua" garatzeko; horren arabera, bai Bilboko Portu Agintaritzak bai Uraren Euskal Agentziak konpromisoa hartu dute bakoitzak bere gain hartzeko aipatutako aurreproiektuaren aurrekontuaren %50.

8. KAPITULUA.- FINANTZA-AKTIBOAK

Horren jatorria da 2016ko urtarrilera arteko indarraldia duen eta BBUPEk 2013ko urrian harpidetu zuen 9.500.000,00 euroko zor publikoa.

Indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera langileei emandako maileguak itzultzean sortutakoak dira. Kontzeptu honengatiko diru-sarrerak 157.472,64 eurokoak izango dira, zenbatespenen arabera.



III

AURREIKUSITAKO KREDITU-ERAGIKETAK
EBALUATZEKO ERABILITAKO OINARRIAK

2016ko aurrekontuaren arabera, ez da inolako krediturik kontratatuko.

Bilbon, 2015eko irailaren 24an



EKONOMIA ETA FINANTZA
ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA



9.-Txosten ekonomiko-finantzarioa konpromiso-kredituak finantzatzeko baliabideen nahikotasunari buruzkoa (eranskina).



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

TXOSTEN

EKONOMIKO-FINANTZARIOA

KONPROMISO KREDITUAK FINANTZATZEKO

BALIABIDEEN NAHIKOTASUNARI BURUZKOA (ERANSKINA)

2016KO AURREKONTUA

KONPROMISO KREDITUAK

Aurrekontua idazteko orduan, etorkizuneko ekitaldietarako Konpromiso Kredituak (lanei eta zerbitzuei dagozkienak) honakoak dira:

Prog.	KONTZEPTUA	Hasiera	Amaia	Fasea	Kostua Guztira	2016	2017	2018	2016-2018 GUZTIRA
GASTU ARRUNTA									
169.12	Giza ur-hornikuntzarako hartuneen erregularizazio administratibo eta legala. Fase II	2015	2016	D	99.767,24	49.767,24			49.767,24
169.13	Luzapena – Zaintza Erradiologikoa (2015-16)	2015	2016	D	39.124,44	19.562,11			19.562,11
169.21	Luzapena - LT Proiektuak idaztea eta DO BL-I Saneamenduaren obra zuzendaritza	2015	2016	D	467.990,00	77.998,33			77.998,33
169.21	LT Proiektuak idaztea eta DO BL-I Saneamenduaren obra zuzendaritza	2016	2018	A	1.587.400,00	467.990,00	869.410,00	250.000,00	1.587.400,00
169.23	Ingurune hartzalearen gaineko Zaintza Planak, Galindo, Gorliz, Bakio, Lekeitio eta Ondarroako HUAen 2015eko isurketa baimenei dagokienez	2015	2016	D	212.563,31	80.563,31			80.563,31
169.51	Hartidura anaerobikodun biohidrogenoz elikaturiko pila bidezko etenik gabeko elikatze sistema - ikerketa proiektua								
920.05	BBUPen WAN delakoaren gaineko aplikazibeen azelerazio sistema	2015	2016	D	14.000,00	7.000,00			7.000,00
920.05	Banda-zabaleraren hiru kudeatzailer hornitu, instalatu eta abian jartzea	2013	2016	D	57.164,24	487,50			487,50
920.05	BBUPen sarea segurtatzeko sei ekipo hornitu, instalatu eta abian jartzea	2013	2016	D	54.840,00	180,00			180,00
920.05	BBUPen sarea segurtatzeko sei ekipo hornitu, instalatu eta abian jartzea	2013	2016	D	142.379,33	530,00			530,00

Prog.	KONTZEP-TUA	Hasiera	Amaia	Fasea	Kostua Guztira	2016	2017	2018	2016-2018 GUZTIRA
169.22	BBUPeko instalazioetan sortutako hondakinak kudeatzeko Hitzarmena	2015	2016	D	124.500,00	72.625,00			72.625,00

HORNIKUNTZA LANAK

452.08	Boluetako Nerbioi ibaiaren ponpaketa berritzea eta Arratia ibaiaren aprobetxamendua	2014	2016	D	9.861.328,24	4.461.727,26			4.461.727,26
452.28	Undurragako presako by-passa. Barazarko by-passa	2014	2017	D	9.399.963,25	3.619.239,00	682.953,32		4.302.192,32
452.29	Enkarterriko lehen mailako sareko hornikuntza lanak, 1. zatia: Las Carreras-EI Arenao	2014	2016	D	11.943.220,45	6.543.220,45			6.543.220,45
452.31	Ollarganen, Nerbioi-Ollargan-Beteluri hoditeriari eusteko lanak	2015	2016	A	815.927,88	765.927,88			765.927,88
452.32	Gartxetako EUTetik Gorbeoko biltegi berrirako bulkada	2015	2016	A	1.464.695,17	1.414.695,17			1.414.695,17
452.35	Aurrekolanda eta Loiu arteko hoditeria berritzeko lanak (Lehen mailako Sarea)	2016	2017	A	1.178.651,53	500.000,00	678.651,53		1.178.651,53

HORNIKUNTZA LANETARAKO L.T. (Laguntza Teknikoa)

452.64	Sta. Clara, Ibaceta eta Berriatuko urak babesteko ikerketa hidrologikoak eta Artibai ibaiaren ibilguaren eraginaren azterketa	2015	2016	D	119.066,73	44.686,73			44.686,73
452.70	Gartxetako EUTetik Gorbeoko biltegirako bulkadarako eta Sta. Clara eta Delikako biltegi uren bilketarako obra zuzendaritzarako laguntza teknikoa	2015	2016	A	59.875,00	39.875,00			39.875,00
452.75	Uribitarfeko lokalak (1 solairua) atontzeko lanen O.Z. L.T.	2015	2016	A	24.800,00	17.700,00			17.700,00
452.81	Enkarterriko lehen mailako sareko hornikuntza lanen (1. zatia: Las Carreras-EI Arenao) O.Z. L.T.	2014	2016	D	303.290,00	133.290,00			133.290,00
452.86	Undurragako presako by-passeko lanak. 2. banakapena. Undurragako presako by-passa lanen proiektuaren O.Z. L.T.	2014	2016	D	311.650,00	111.650,00			111.650,00



Prog.	KONTZEPTUA	Hasiera	Amaia	Fasea	Kostua Guztira	2016	2017	2018	2016-2018 GUZTIRA
452.92	Eragindako zerbitzuak ebaluatzeko laguntza teknikoa (oztopoen kudeaketa eta beteazterako moduak)	2015	2016	D	29.760,00	15.760,00			15.760,00
452.93	Uribe Kosta eta Mungialde-Bakio Sistemen interkonexio proiektuaren erredakziorako L. T.	2014	2015	D	150.179,00	45.179,00			45.179,00
452.95	Enkarterri (II. tartea: El Arenao-Avellanedako biltegia-Sollanoko EUT) lehen mailako sare bidez hornitzeko eraikuntza-proiektua idatzeko laguntza teknikoa	2015	2016	D	265.585,00	175.585,00			175.585,00
452.96	"Bolueta Nerbioi ibaiaren ponpaketa berritzea eta Arratia ibaiaren 4.500l/s aprobetxamendua" ekipoen kontrolerako O.Z. L. T.	2014	2016	D	54.912,00	16.016,00			16.016,00

SANEAMENDU LANAK

459.09	Gainezkabideen baheketa proiektua Gorlizko saneamendu sisteman	2015	2016	D	1.135.751,75	335.751,75			335.751,75
459.12	Berriatua-Ondarroako etengailua (2. fasea)	2014	2016	D	6.363.502,46	150.000,00			150.000,00
459.15	Turtziozko HUAren proiektua, obra eta zerbitzuan jartzea.	2015	2017	D	2.834.280,13	1.750.000,00	284.280,13		2.034.280,13
459.17	Butroe erdiko saneamendu proiektua. 3. fasea: Gorordoko ponpategia-Butroe-Laukiz	2014	2016	D	5.150.858,00	650.858,00			650.858,00
459.18	Sopuertako HUAko obra eta abiarazte proiektua	2014	2016	D	3.566.403,87	1.561.403,87			1.561.403,87
459.28	Aulestiko HUAko obra	2015	2017	A	3.477.837,12	2.000.000,00	1.377.837,12		3.377.837,12
459.38	San Esteban Auzoko (Galdames) Saneamendu proiektua	2015	2016	D	1.249.619,88	649.619,88			649.619,88

SANEAMENDU LANETARAKO L. T. (Laguntza Teknikoa)

169.51	BBUPen lanen proiektuen ingurumen kudeaketarako L. T.	2014	2016	D	455.506,88	189.035,36			189.035,36
169.51	Luzapena - VI. blokeko lanen segurtasun eta osasunerako L. T.	2015	2016	D	237.682,50	99.034,34			99.034,34

Prog.	KONTZEPТУA	Hasiera	Amaia	Fasea	Kostua Guztira	2016	2017	2018	2016-2018 GUZTIRA
169.51	Luzapena - STI proiektu eta lanen L. T.	2015	2016	D	173.923,76	72.468,23			72.468,23
169.51	Galindoko HUAko Bisitarien Pabiloiko proiektu museografikorako laguntza teknikoa	2015	2016	D	54.442,00	27.000,00			27.000,00
459.01	Luzapena - II. blokeko saneamendu proiektuak idazteko eta O.Z.aren L. T.	2015	2016	D	136.351,72	22.725,29			22.725,29
459.01	II. blokeko saneamendu proiektuak idazteko eta O.Z.aren L. T.	2016	2018	A	502.360,00	209.000,00	251.180,00	42.180,00	502.360,00
459.07	Enkarterriko udalerrietako saneamenduaren O.Z.	2012	2017	D	1.340.720,00	345.000,00	65.871,88		410.871,88
459.07	Berriatuko kolektorea - Ondarroa (2. fasea) O.Z.	2014	2015	D	199.772,00	14.772,00			14.772,00
459.07	Butroe erdiko saneamendu proiektuaren. (3. fasea: Gorordoko ponpategia-Butroe-Laukiz) O.Z.aren L. T.	2014	2016	A	301.700,00	66.280,50			66.280,50
459.07	Gorlizko saneamendu sistemako gainezkabideen baheketaren proiekturako obra zuzendaritzaren laguntza teknikoa	2015	2016	D	41.902,00	16.902,00			16.902,00
459.07	Bilboko portuaren saneamenduaren eraikuntza proiektua (I. fasea eta II. fasearen oinarritzko proiektua) idazteko laguntza teknikoa	2015	2016	A	256.117,75	156.117,75			156.117,75
459.07	Aulesti eta Munitibarko HUAren proiektuen O.Z.aren L. T.	2016	2018	A	295.300,00	102.000,00	122.000,00	71.300,00	295.300,00
459.67	VII. blokeko lanen segurtasun eta osasunerako L. T.	2016	2018	A	950.000,00	250.000,00	350.000,00	350.000,00	950.000,00

ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK

920.03	Uribitarteko lokalak atontzeko lanak, lehenengo solairua.	2015	2016	D	478.952,77	318.952,77			318.952,77
--------	---	------	------	---	------------	------------	--	--	------------

INSTALAZIOAK

169.31	Galindoko kanpoko argiztapenerako lanak	2015	2016	D	1.699.772,23	605.663,37			605.663,37
169.31	Arriandiko HUAren eraikuntza proiektuaren idazketa eta biogasaren aprobetxamendurako obra zuzendaritza	2015	2017	D	64.696,00	15.872,00	15.128,00		31.000,00

Prog.	KONTZEPtua	Hasiera	Amaia	Fasea	Kostua Guztira	2016	2017	2018	2016-2018 GUZTIRA
169.31	Leketioko HUAko eta horri lotutako ponpategietako eta gainezka bideetako sistema elektrikoa eta kontrol sistema berritzeko lanak	2015	2017	D	856.376,31	570.917,54	142.729,38		713.646,92
169.31	Galindoko HUAko erreaktore biologikoetako 1. turbosoplantarako motor elektrikoaren hornidura	2015	2015	D	83.000,00	10.000,00			10.000,00
169.31	Muskizko saneamenduko elektrizitate, kontrol, komunikazio eta ikuskapen sistemak eguneratzeko proiektua	2015	2016	A	313.045,89	125.218,89			125.218,89
169.31	Galindoko 1. eta 2. labeen errausketa-lineen erabateko geldialdiaren urteko ikuskapena	2015	2016	D	527.247,22	150.642,06			150.642,06
169.31	Galindoko HUAko lohien 1. labearen elektroiragazkia zaharberritzeko lanak	2015	2016	D	225.667,00	35.667,00			35.667,00
169.31	Galindoko 2. labea galdararen aerokondentsadore azpihazlearen hornidura eta muntaia	2015	2016	A	69.096,00	19.096,00			19.096,00
169.31	Tratamendu biologikorako 2., 3. eta 6. zenbakidun urmaelak birgaitzeko lanak	2015	2016	D	199.789,94	140.000,00	24.789,94		164.789,94
169.31	Galindoko HUAko klarifikagailuetako hondakindegia zaharberritzeko obra	2015	2016	A	208.080,00	184.960,00			184.960,00
169.31	Galdames, Sopuerta eta Turtziozko udalerriak BBUPen hornikuntzako estazioen ikuskapen eta kontrol zerbitzura sartzeko lanak	2015	2016	D	121.216,48	56.216,48			56.216,48
169.31	Trasbase-ponpaketarako 4 ponparen hornidura	2015	2016	A	270.000,00	10.000,00			10.000,00
169.31	Gaur egungo TDM telefonia sistema IP telefonia irtenbide osorako migrazioa	2015	2016	A	192.024,51	92.024,51			92.024,51
169.52	Beteluriko 1. faseko berrikuntzaren lan osagarriak	2015	2017	A	2.584.489,76	2.200.000,00	384.489,76		2.584.489,76
459.53	Galindoko HUAN hondakin likidoak jasotzeko instalazioaren lanak	2015	2016	D	1.075.172,01	414.277,20			414.277,20

Prog.	KONTZCEPTUA	Hasiera	Amaia	Fasea	Kostua Guztira	2016	2017	2018	2016-2018 GUZTIRA
-------	-------------	---------	-------	-------	----------------	------	------	------	-------------------

EKIPO INFORMÁTIKOAK

920.05	Backup sistema BBUPen azpiegiturara egokitzeko hardwarea eta softwarea eskuratzea	2015	2016	D	93.727,00	25.561,91			25.561,91
920.05	ORACLE datu-baseak erabiltzen dituzten aplikazioetarako erabilgarritasun handiko sistema erostea	2015	2016	A	180.000,00	150.000,00			150.000,00

	GUZTIRA
--	---------

	94.360.559,27	37.351.213,68	7.554.409,10	713.480,00	45.619.102,78
--	---------------	---------------	--------------	------------	---------------

A	Baimenduak:	8.504.310,70	3.782.388,41	671.300,00	12.957.999,11
D	Erabiliak:	28.846.902,98	3.772.020,69	42.180,00	32.661.103,67

	BESTEREN FINANTZIAZIOA
	Finantziazio propioa

	40.156.118,00	40.000.000,00	40.000.000,00	120.000.000,00
	E/A	E/A	E/A	E/A

Likidatutako azken ekitaldiko (2014) operazio arruntengatik aitoritutako eskubideak 107.709.564,88 eurokoak izan ziren. %25a, 26.927.391,22 euro izanik; beraz, ez dituzte gainditzen finantziazio propioarekin finantzatutako kredituak.

Besteren finantziazioa Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren ondorioa da. Hitzarmena 2008-2018 aldirako da, eta zenbatekoa 381 milioi eurokoa da guztira. Bestalde, Ur Agentzia eta Bilboko Portuko Agintaritzarekin sinatutako hitzarmena guztira 156.118,00 euroko da.

Finantziazio propioa Sarreraren Egoeraren 3 - 5. kapituluetakoa kontzeptu espezifikoetan aurreikusitakoa da.

Konpromisoko Kredituen Egoera onartzeko proposamena egin da, lizitazioaren zenbatekoetatik abiatuta edo, lizitazioa amaitu bada, Inbertsio Programan jasotako lan eta laguntza teknikoen esleipenetik abiatuta.

Bilbon, 2015eko irailaren 24an



Fdo.: **Jose Manuel Pereda Renobales**



10.-Itxitako azken ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa (2014).



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ITXITAKO AZKEN EKITALDIA

2014 EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN LABURPENA, ITXITAKO AZKEN EKITALDIA

2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA GASTUAK

LABURPENA, KAPITULUKA

EKITALDI ARRUNTA		HASIERAKO KREDITUA	ALDAKETAK	BEHIN BETIKO KREDITUA	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK	ORDAINKETA LIKIDOA	ORDAINTEKE	BETEARAZPEN MAILA
A. ERAGIKETA ARRUNTAK	1. PERTSONAL GASTUAK	24.625.805,83	-454.808,86	24.170.996,97	24.037.851,33	23.556.440,42	481.410,91	-133.145,64
	2. ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	62.049.772,46	5.302.395,51	67.352.167,97	54.993.782,74	51.160.705,13	3.833.077,61	-12.358.385,23
	3. GASTU FINANTZARIOAK	30.000,00	0,00	30.000,00	0,00	0,00	0,00	-30.000,00
	4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	62.000,00	0,00	62.000,00	32.722,43	32.722,43	0,00	-29.277,57
		86.767.578,29	4.847.586,65	91.615.164,94	79.064.356,50	74.749.867,98	4.314.488,52	-12.550.808,44
B. KAPITAL-ERAGIKETAK	6. INBERTSIO ERREALAK	72.168.824,55	3.017.086,36	75.185.910,91	44.969.478,51	39.178.981,16	5.790.497,35	-30.216.432,40
	7. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	700.000,00	3.786.355,29	4.486.355,29	3.426.662,99	1.707.707,95	1.718.955,04	-1.059.692,30
	8. AKTIBO FINANTZARIOAK	157.472,64	11.500.000,00	11.657.472,64	2.538.370,67	2.538.370,67	0,00	-9.119.101,97
		73.026.297,19	18.303.441,65	91.329.738,84	50.934.512,17	43.425.059,78	7.509.452,39	-40.395.226,67
	EKITALDI ARRUNTA GUZTIRA	159.793.875,48	23.151.028,30	182.944.903,78	129.998.868,67	118.174.927,76	11.823.940,91	-52.946.035,11

ITXITAKO EKITALDIAK		OBLIGAZIOEN HASIERAKO SALDOA	ORDAINKETEN HASIERAKO SALDOA	ZUZENKETAK	OBLIGAZIO NETOAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTEKE	
A. ERAGIKETA ARRUNTAK								
1.	PERTSONAL GASTUAK	376.432,95	82.463,67	0,00	458.896,62	458.896,62	0,00	
2.	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	63.754,79	5.181.152,41	0,00	5.244.907,20	5.244.907,20	0,00	
		440.187,74	5.263.616,08	0,00	5.703.803,82	5.703.803,82	0,00	
B. KAPITAL-ERAGIKETAK								
6.	INBERTSIO ERREALAK	5.108,77	5.641.516,23	-2.602,06	5.644.022,94	5.643.127,98	894,96	
7.	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	411.291,52	0,00	0,00	411.291,52	0,00	411.291,52	
		416.400,29	5.641.516,23	-2.602,06	6.055.314,46	5.643.127,98	412.186,48	
ITXITAKO EKITAL DIAK GUZTIRA		856.588,03	10.905.132,31	-2.602,06	11.759.118,28	11.346.931,80	412.186,48	

2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA
 SARRERAK

LABURPENA, KAPITULUKA

EKITALDI ARRUNTA		HASIERAKO AURREIKUSPENA	ALDAKETAK	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENA	ONARTUTAKO ESKUBIDEAK	DIRU-BILKETA LIKIDOA	KOB RATZEKE	BETEARAZPEN MAILA
A. ERAGIKETA ARRUNTAK								
3. TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK		112.747.669,21	0,00	112.747.669,21	105.920.846,73	75.297.920,59	30.622.926,14	-6.826.822,48
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		56.403,24	0,00	56.403,24	54.132,00	0,00	54.132,00	-2.271,24
5. ONDARE-SARRERAK		1.931.155,39	0,00	1.931.155,39	1.734.586,15	810.112,68	924.473,47	-196.569,24
		114.735.227,84	0,00	114.735.227,84	107.709.564,88	76.108.033,27	31.601.531,61	-7.025.662,96
B. KAPITAL-ERAGIKETAK								
6. INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA		0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK		44.901.175,00	0,00	44.901.175,00	49.540.131,65	32.379.959,84	17.160.171,81	4.638.956,65
8. AKTIBO FINANTZARIOAK		157.472,64	23.151.028,30	23.308.500,94	166.827,12	166.827,12	0,00	9.354,48
		45.058.647,64	23.151.028,30	68.209.675,94	49.706.958,77	32.546.786,96	17.160.171,81	4.648.311,13
EKITALDI ARRUNTA GUZTIRA		159.793.875,48	23.151.028,30	182.944.903,78	157.416.523,65	108.654.820,23	48.761.703,42	-2.377.351,83

(*) Diruzaintza Gerakinekin finantziatutako Aldaketaren eragina zuzendu eta gero lortutako Beterazpen maila



ITXITAKO EKITALDIAK		HASIERAKO SALDOA	ERREKTIKAZIO / ANULAZIOAK	KANTZELATUTAKO ESKUBIDEAK	ONARTUTAKO ESKUBIDEAK	DIRU-BILKETA LIKIDOA	KOB RATZEKE	
A. ERAGIKETA ARRUNTAK								
	3. TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	35.634.312,88	465.219,98	0,00	35.169.092,90	26.677.214,27	8.491.878,63	
	4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	173.743,23	0,00	0,00	173.743,23	0,00	173.743,23	
	5. ONDARE-SARRERAK	1.011.278,79	133.523,29	0,00	877.755,50	874.817,14	2.938,36	
		36.819.334,90	598.743,27	0,00	36.220.591,63	27.552.031,41	8.668.560,22	
B. KAPITAL-ERAGIKETAK								
	7. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	12.871.322,45	0,00	0,00	12.871.322,45	12.871.322,45	0,00	
		12.871.322,45	0,00	0,00	12.871.322,45	12.871.322,45	0,00	
	ITXITAKO EKITALDIAK GUZTIRA	49.690.657,35	598.743,27	0,00	49.091.914,08	40.423.353,86	8.668.560,22	

Bilbon 2015eko irailaren 24an.





**11.-2015ko aurrekontuaren
betearazpen mailaren
aurrerapena
(2015ko/08/31an).**



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

2015EKO AURREKONTUAREN BETEARAZPENAREN AURRERAPENA

2015EKO ABUZTUAREN 31AN



2015EKO ABUZTUAREN 31AN AURREKONTUAREN BETEARAZPENAREN AURRERAPENA
GASTUAK (milaka eurotan)

LABURPENA, KAPITULUKA

EKITALDI ARRUNTA	Behin betiko kreditua (C)		Baimendutako gastua (A)		Prestatutako gastua (D)		Onartutako Obligazioak (O)		Beteazpen maila (O/C)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014 (%)	2015 (%)
ERAGIKETA ARRUNTAK										
1. Pertsonal gastuak	24.817,90	26.558,35	15.219,20	15.721,99	15.215,29	15.721,99	15.151,34	15.670,73	61,05%	59,00%
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. gastuak	66.657,74	67.405,23	58.508,74	62.316,27	58.020,65	60.241,05	33.869,92	34.488,49	50,81%	51,17%
3. Gastu finantzarioak	30,00	30,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00%	0,00%
4. Transferentzi aruntak	62,00	62,00	13,54	35,24	13,54	35,24	13,54	35,24	21,84%	56,84%
	91.567,64	94.055,58	73.741,48	78.073,50	73.249,48	75.998,28	49.034,80	50.194,46	53,55%	53,37%
KAPITAL-ERAGIKETAK										
6. Inbertsio errealak	75.185,91	78.744,63	55.722,90	63.393,67	55.358,43	60.389,32	23.004,19	26.373,81	30,60%	33,49%
7. Kapital-transferentziak	4.486,36	1.702,05	4.486,36	1.702,05	4.486,36	1.702,05	992,97	140,18	22,13%	8,24%
8. Aktibo finantzarioak	11.657,47	10.157,47	2.415,72	0,00	2.415,72	0,00	2.415,72	0,00	20,72%	0,00%
	91.329,74	90.604,15	62.624,98	65.095,72	62.260,51	62.091,37	26.412,88	26.513,99	28,92%	29,26%
EKITALDI ARRUNTA, GUZTIRA	182.897,38	184.659,73	136.366,46	143.169,22	135.509,99	138.089,65	75.447,68	76.708,45	41,25%	41,54%

ITXITAKO EKITALDIAK, GUZTIRA	Obligazioen eta ordainketa mand. Hasierako saldoa (C)		Obligazioen eta ordainketa mand. Saldo netoa (O)		Ekitaldiko ordainketak (P)		Ordaintzeke		Beteazpen maila (P/O)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014 (%)	2015 (%)
	11.761,72	12.236,13	11.759,12	12.235,61	11.346,80	12.125,76	412,32	109,85	96,47%	99,10%




2015EKO ABUZTUAREN 31AN AURREKONTUAREN BETEARAZPENAREN AURRRERAPENA
SARRERAK (milaka eurotan)

LABURPENA, KAPITULUKA

EKITALDI ARRUNTA	Behin betiko aurrekontua (P)		Onartutako eskubideak (R)		Diru-bilketa (I)		Kobratzeke		Beteazpen maila (R/P)(*)		Beteazpen maila (I/P)(*)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014(%)	2015(%)	2014(%)	2015(%)
ERAGIKETA ARRUNTAK												
	112.747,67	113.331,28	72.002,52	75.764,16	46.263,13	49.222,46	25.739,39	26.541,70	63,86%	66,85%	41,03%	43,43%
	56,40	60,00	54,13	0,00	0,00	0,00	54,13	0,00	95,98%	0,00%		
	1.931,16	1.112,32	633,65	267,07	633,65	267,07	0,00	0,00	32,81%	24,01%	32,81%	24,01%
	114.735,23	114.503,60	72.690,30	76.031,23	46.896,78	49.489,53	25.793,52	26.541,70	63,35%	66,40%	40,87%	43,22%
KAPITAL-ERAGIKETAK												
	0,00	0,00	0,00	76,04	0,00	76,04	0,00	0,00				
	44.901,18	45.605,16	24.067,77	19.029,50	12.822,93	18.499,88	11.244,84	529,62	53,60%	41,73%	28,56%	40,57%
	23.260,97	24.551,00	106,02	78,74	106,02	78,74	0,00	0,00	67,33%	50,00%	67,33%	50,00%
	68.162,15	70.156,20	24.173,79	19.184,28	12.928,95	18.654,66	11.244,84	529,62	53,65%	41,92%	28,69%	40,76%
EKITALDI ARRUNTA, GUZTIRA	182.897,38	184.659,74	96.864,09	95.215,51	59.825,73	68.144,19	37.038,36	27.071,32	60,62%	59,41%	37,44%	42,52%

(*) Diruzaintza Gerakinekin finantzatutako Aldaketen eragina zuzendu eta gero lortutako Beteazpen maila.

ITXITAKO EKITALDIAK, GUZTIRA	Hasierako onartutako eskubideak (P)		Onartutako eskubide netoak (R)		Diru-bilketa (I)		Kobratzeke		Beteazpen maila (R/P)		Beteazpen maila (I/P)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014(%)	2015(%)	2014(%)	2015(%)
	49.690,66	57.419,47	29.261,03	52.187,50	40.098,24	47.241,31	9.162,79	4.946,19	99,14%	90,89%	81,40%	90,52%





12.- 2016ko Aurrekontu Orokor Bateratuaren gaineko aurrekontua eta memoria.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

2016ko AURREKONTU OROKORRARI BURUZKO

MEMORIA



KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA

I

2016ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra honako Aurrekontu hauen bidez eratu da:

- . Partzuergo honen aurrekontua: 164.611.334,44 eurotan orekatua.
- . Udal Sareak, S.A.ren aurrekontua: 99.986.115,21 eurokoa da, diru-sarreraren eta gastuen egoerak kontuan hartuta. Ez da bateratu, Partzuergoaren partaidetza %100ekoa delako.
- . Aguas de Bilbao, S.A.ren aurrekontua: 87.947,00 eurotan orekatua. 29.315,67 euro bateratu dira, eta gainerakoa beste sozietate batzuen partaidetzari dagokio.

Aurrekontu bateratua, beraz, 164.640.650,11 eurokoa da.

II

Aurrekontu Orokorra aztertzean, honako hauxe nabarmendu behar da:

- . Partzuergoko diru-sarreraren egoeran, ekitaldian likidatu beharreko eskubideen aurreikuspena azaltzen da. Gastuen egoeran, ordea, aitortu beharreko betebeharrei aurre egiteko kredituak agertzen dira. Memoria Argigarria eta gainerako agiriak ere prestatu dira, aurrekontuari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera.
- . Udal Sareak eta Aguas de Bilbao sozietateek Memoria eta gainerako agiriak aurkeztu dituzte.
- . Euren aurrekontuetan aurreikusitako diru-sarrerak nahikoak dira, bertako gastuei aurre egiteko. Hori dela eta, Aurrekontu Orokorra ez du defizitik hasiera batean.
- . Aurrekontua eratzeke orduan, indarreko xedapenak bete dira.



III

Aurrekontu orokorra Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar zaio, bai eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena ere, Partzuergoaren Estatutuetan eta ezarri beharreko aurrekontu-arauegien xedatutakoa kontuan hartuta.

Partzuergoko Batzar Nagusiak onartu beharko du aurrekontua, eta onarpena 2015eko abenduaren 31 baino lehen izan beharko da behin betikoa.


Behin-behineko onarpenerako erabakia hartuta, jendaurrean jarri beharko da ikusgai hamabost egunez. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta ediktuen taulan argitaratuko da, zilegizko interesdunek aztertu eta, hala badagokio, behar besteko erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamaziorik egon ezean, Aurrekontua behin betiko onartuta geratuko litzateke.

Bilbon, 2015eko irailaren 24an.

KONTU-HARTZAILEA,



PRESIDENTEA,



GERENTEA,





EJERCICIO ECONÓMICO: 2016

Fecha: 24/09/2015



PRESUPUESTO GENERAL CONSOLIDADO

	CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA	UDAL SAREAK, S.A.	AGUAS DE BILBAO, S.A.	AGUAS DE BILBAO, S.A. a consolidar	PRESUPUESTO GENERAL CONSOLIDADO (1)
INGRESOS TOTALES	164.611.334,44	99.986.115,21	87.947,00	29.315,67	164.640.650,11
		PRESUPUESTO INGRESOS CONSOLIDADO			164.640.650,11
GASTOS TOTALES	164.611.334,44	99.986.115,21	87.947,00	29.315,67	164.640.650,11
		PRESUPUESTO GASTOS CONSOLIDADO			164.640.650,11
	NIVELADO	NIVELADO	NIVELADO	NIVELADO	NIVELADO

(1) PRESUPUESTO CONSOLIDADO

- Consorcio: 100%
- Udal Sareak: 0%
- Aguas de Bilbao: 33,33%

Bilbao, 24 de septiembre de 2015



EJERCICIO ECONÓMICO: 2016

Fecha: 24/09/2015

PRESUPUESTO GENERAL CONSOLIDADO - INGRESOS

CAPÍTULOS	CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA	UDAL SAREAK, S.A.	AGUAS DE BILBAO, S.A.	AGUAS DE BILBAO, S.A. a consolidar	PRESUPUESTO GENERAL CONSOLIDADO (1)
<u>A) OPERACIONES CORRIENTES</u>	114.797.743,80	99.947.180,84	7.200,00	2.400,00	114.800.143,80
3. TASAS Y OTROS INGRESOS	113.906.761,38	99.945.680,84	0,00	0,00	113.906.761,38
4. TRANSFERENCIAS CORRIENTES	60.000,00	0,00	0,00	0,00	60.000,00
5. INGRESOS PATRIMONIALES	830.982,42	1.500,00	7.200,00	2.400,00	833.382,42
<u>B) OPERACIONES DE CAPITAL</u>	49.813.590,64	38.934,37	80.747,00	26.915,67	49.840.506,31
7. TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	40.156.118,00	0,00	0,00	0,00	40.156.118,00
8. ACTIVOS FINANCIEROS	9.657.472,64	38.934,37	80.747,00	26.915,67	9.684.388,31
TOTALES	164.611.334,44	99.986.115,21	87.947,00	29.315,67	164.640.650,11

PRESUPUESTOS DE INGRESOS CONSOLIDADO

164.640.650,11

Bilbao, 24 de septiembre de 2015

(1) PRESUPUESTO CONSOLIDADO

. Consorcio: 100%

. Udal Sareak: 0%

. Aguas de Bilbao: 33,33%

EJERCICIO ECONÓMICO: 2016

Fecha: 24/09/2015

PRESUPUESTO GENERAL CONSOLIDADO - GASTOS

CAPÍTULOS	CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA	UDAL SAREAK, S.A.	AGUAS DE BILBAO, S.A.	AGUAS DE BILBAO, S.A. a consolidar	PRESUPUESTO GENERAL CONSOLIDADO (1)
<u>A) OPERACIONES CORRIENTES</u>	89.812.650,97	99.861.491,71	87.947,00	29.315,67	89.841.966,64
1. GASTOS DE PERSONAL	25.922.015,73	1.024.022,67	0,00	0,00	25.922.015,73
2. GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y S	63.793.635,24	98.837.269,04	87.947,00	29.315,67	63.822.950,91
3. TASAS Y OTROS INGRESOS	30.000,00	0,00	0,00	0,00	30.000,00
4. TRANSFERENCIAS CORRIENTES	67.000,00	200,00	0,00	0,00	67.000,00
<u>B) OPERACIONES DE CAPITAL</u>	74.798.683,47	124.623,50	0,00	0,00	74.798.683,47
6. INVERSIONES REALES	64.441.210,83	124.623,50	0,00	0,00	64.441.210,83
7. TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	700.000,00	0,00	0,00	0,00	700.000,00
8. ACTIVOS FINANCIEROS	9.657.472,64	0,00	0,00	0,00	9.657.472,64
TOTALES	164.611.334,44	99.986.115,21	87.947,00	29.315,67	164.640.650,11

PRESUPUESTOS DE GASTOS CONSOLIDADO

164.640.650,11

Bilbao, 24 de septiembre de 2015

(1) PRESUPUESTO CONSOLIDADO

. Consorcio: 100%
. Udal Sareak: 0%
. Aguas de Bilbao: 33,33%



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Ekonomia eta Finantza Zerbitzuen Zuzendaritza
Dirección de los Servicios Económicos y Financieros

2016

13.- Aurrekontua Betearazteko Araua





Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

AURREKONTUA BETEARAZTEKO ARAUA 2016



AURKIBIDEA

01. OINARRI OROKORRAK	4
1.1. Aurrekontu orokorraren osaketa eta zenbatekoa.....	4
1.2. Aurrekontuaren egitura.....	4
1.2.1. Diru-sarreraren egoera.....	4
1.2.2. Gastuen egoera. Egitura Ekonomiko eta Programen arabera.....	4
1.3. Aurrekontuaren izapideak.....	7
02. AURREKONTU-KREDITUEN ETA ALDAKETEN ARAUBIDEA.....	8
2.1. Aurrekontu Kredituen Araubide Orokorra.....	8
2.1.1. Kredituen izaera eta lotura juridikoa.....	8
2.1.2. Langile-gastuetarako kredituak.....	9
2.1.3. Konpromiso-kredituak.....	9
2.2. Aldaketen Araubidea.....	10
2.2.1. Gastuen eta diru-sarreraren egoeretako aldaketak.....	10
2.2.2. Kreditu-transferentziak.....	10
2.2.3. Kreditu gehigarriak.....	11
2.2.4. Hitzarmenen Araubidea.....	11
2.2.5. Kredituen txertaketa.....	11
2.2.6. Kredituak ematea.....	12
2.2.7. Aurrekontuko beste aldaketa batzuen arloko eskumenak.....	13
2.2.8. Kreditu-aldaketen arloko prozedura.....	13
03. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA.....	14
3.1. Aurrekontuko gastuak betearazteko eskumenak.....	14
3.2. Kreditu-atxikipenak.....	16
3.3. Euskarri-agiriak.....	16
3.4. Justifikatu beharreko ordain-aginduak.....	17
3.5. Kutxa finkoko aurrerakinak.....	19
3.6. Batera finantzatutako proiektuak.....	19
3.7. Txosten ekonomiko-finantzarioa.....	19
04. DIRU-SARREREN KUDEAKETA.....	20
4.1. Diru-sarreraren bilketa.....	20
4.2. Fidantzak eta gordailuak.....	21
05. DIRUZAINITZA.....	22
5.1. Fondoaren zainitza.....	22
5.2. Diruzaintza eta aurrerakin arloko eragiketak.....	23
06. LANGILERIA.....	24
6.1. Langileen Araubidea.....	24
6.2. Partzuergoko langile-taldea.....	24
6.3. Lanpostuen sorrera, aldaketa eta amortizazioa.....	25
6.4. Lanpostuen Zerrenda.....	25
6.5. Partzuergoko langile-taldea aldatzeko prozedura.....	25
6.5.1. Langile berrien altak.....	25
6.5.2. Langileen bajak.....	26
6.5.3. Langile-aldaketak.....	26
6.6. Soldaten ordainketa.....	26
07. KONTRATAZIOA.....	27
7.1. Kontratazio administratiboa.....	27



8. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA	30
8.1. Ixteko eguna.	30
8.2. Likidazio-espedientearen edukia.	30
8.3. Onarpena eta osteko izapideak.	31
9.1. Luzapenaren Araubidea.	32
10. KONTU OROKORRA	33
10.1. Egoeren eta urteko kontuen zerrenda.....	33
10.2. Onarpena eta osteko izapideak	33
11. KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA	34
11.1. Kontu-hartzailletza	34
11.2. Kontu-hartzailearen kontrola	34
11.3. Legezkontasunaren kontrola	35
11.4. Eraginkortasun eta egokitasunaren kontrol ekonomikoa	35
11.5. Kontrol finantzarioa.....	36
11.6. Eragozpenak.	36
11.7. Fiskalizazio mugatua	37
11.8. “Osteko” kontrolak	37
11.9. Kontu-hartzailletzaren eskumenak	38
12. ZORPEKETA ETA BERMEEEN PRESTAZIOA	39
12.1. Zorpeketaren muga. Finantza-karga.	39
12.2. Diruzaintzako eragiketak.	39
12.3. Abalen emakida.	39
13. ESKUORDETZAK	40
13.1. Presidentearen aldekoak.	40
13.2. Gerentearen aldekoak.	41
13.3. Produktu eta azpiproduktuen besterentzea.	41
13.4. Beste eskuordetza batzuk.....	42
14. INTERPRETAZIOA	43
14.1. Aurrekontua Betearazteko Arau honen interpretazioa	43



OINARRI OROKORRAK

1.1. Aurrekontu orokorraren osaketa eta zenbatekoa.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan eta ezarri beharreko gainerako arautegian xedatutakoa hartu da kontuan, 2016ko ekitaldi ekonomikorako Aurrekontu Orokorra eratzeko orduan.
2. Bateratzeko prozesuaren ondorioz sortutako egokitzapenak egindakoa, aurrekontu orokorreko gastuen eta diru-sarreraren egoerak 164.640.650,11 eurotan daude orekatuta. Horrez gain, honako aurrekontu hauek ditu osagai:
 - a) PARTZUERGOAREN aurrekontua: gastu eta diru-sarreretan dago orekatua eta 164.611.334,44 eurokoa da.
 - b) %100eko partaidetzapeko UDAL SAREAK, S.A. sozietatearen aurrekontua: diru-sarrerak eta gastuak aurreikusteko egoerak 99.986.115,21 eurokoak dira, eta ez dira bateratzen.
 - c) %33,33ko partaidetzapeko AGUAS DE BILBAO, S.A. sozietatearen aurrekontua: diru-sarrerak eta gastuak aurreikusteko egoerak 87.947,00 eurokoak dira. 29.315,67 euro bateratzen dira, hau da, %33,33ko benetako partaidetzaren baliokidea.

1.2. Aurrekontuaren egitura.

1.2.1. Diru-sarreraren egoera.

Diru-sarreraren Aurrekontu Ekonomikoa egiteko orduan, kapitulua, artikulua, azalpena eta azpiazalpena hartu dira kontuan.

1.2.2. Gastuen egoera. Egitura ekonomiko eta programakoa.

1. Gastuen Aurrekontu Ekonomiko eta Programakoa, sailkapen ekonomiko (kapitulua, artikulua, azalpena eta azpiazalpena) eta programako sailkapena (gastuen area, gastuen politika eta programa-taldeak) uztartzen dira, eta, azken mailan, kontu-saila da.



Hona hemen Programen arabera aurrekontua osatzen duten gastu-arloa, gastu-politika eta programa taldeak:

1. GASTU-AREA- OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

- . 16 Gastu-politika.- Komunitate-ongizatea
Programa taldeak:
 - 161. Ur hornikuntza, saneamendua eta ur banaketa
 - 169.01. Zerbitzu tekniko komunak
 - 169.11. Proiektuak eta lanak. Hornikuntza
 - 169.12. Ustiapena. Hornikuntza
 - 169.13. Laborategia. Hornikuntza
 - 169.21. Proiektuak eta lanak. Saneamendua
 - 169.22. Ustiapena. Saneamendua
 - 169.23. Laborategia. Saneamendua
 - 169.31. Aktiboen kudeaketa
 - 169.42. Udal sareak.
 - 169.43. Udalei Laguntza emateko Plana
 - 169.45. Udal sareen birjartzea.
 - 169.51. Jasangarritasuna, Teknologia eta Berrikuntza
 - 169.52. Jasangarritasuna, Teknologia eta Berrikuntza. Hornikuntza
 - 169.53. Jasangarritasuna, Teknologia eta Berrikuntza. Saneamendua

2. GASTU-AREA- BABES ETA SUSTAPEN SOZIAL IHARDUERAK

- . 21 Gastu-politika.- Pentsioak
Programa taldeak:
 - 211. Pentsioak
 - 211.01. Erretiratzegatiko kalte-ordainak
 - 211.04. Elkarkidetzarako ekarpena
- . 22 Gastu-politika.- Langileen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk
Programa-taldeak:
 - 221. Langileen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk
 - 221.07. Bizitza eta istripu aseguruak
 - 221.08. Langileentzako maileguak
 - 221.XX. Gizarte-laguntzak

4. GASTU-AREA- ARLO EKONOMIKOKO IHARDUERAK

- . 45 Gastu-politika.- Azpiegiturak
Programa taldeak:
 - 450. Azpiegituren Administrazio orokorra
 - 452. Baliabide Hidraulikoak
 - 452.00. Hornikuntza-lanetarako lursailak
 - 452.XX. Hornikuntza-lanak
 - 452.XX. Hornikuntzako laguntza teknikoak
 - 459. Saneamendua
 - 459.00. Saneamendu-lanetarako lursailak
 - 459.XX. Saneamendu-lanak
 - 459.XX. Saneamenduko laguntza teknikoak



9. GASTU-AREA – ARLO OROKORREKO IHARDUERAK

- . 91 Gastu-politika.- Gobernu Organoak
Programa taldeak:
912. Gobernu Organoak
- . 92. Gastu-politika- Zerbitzu Orokorrak
Programa taldeak:
920. Administrazio Orokorra
920.01. Giza Baliabideak
920.02. Juridiko eta Administrazio Zerbitzuak
920.03. Administrazio Arrunta
920.04. Kontratazioa
920.05. Informatika

925. Hiritarrei arreta
925.01. Bezeroekiko Harremanak

929. Ustegabekoak eta sailkatu gabeko funtzioak
929.01. Kanpoko iharduerak
- . 93. Gastu-politika- Finantza eta Tributu Administrazioa
Programa taldeak:
931. Politika ekonomikoa eta fiskala
931.01. Kontu-hartzailetza

933. Ondarearen kudeaketa
933.01. Lurraren kudeaketa
- . 94. Gastu-politika- Beste administrazio publikoei Transferentziak
Programa taldeak:
941. Autonomi Erkidegoari Transferentziak
942. Foru Aldundiari, mankomunitateei eta partzuergoei Transferentziak
942.01. Bizkaiko Foru Aldundiari Transferentziak

943. Beste udal entitateei transferentziak
943.01. Sestaoko Udala
943.03. Bilboko Udala

944. Estatuko Administrazio Orokorrari Transferentziak

949. Bestelako Transferentziak
949.01. Elkarketa ekonomikoak
949.89. Institutuzioak

2. Gastuen Programen araberako eta Aurrekontu Ekonomikoan, zerbitzuetarako zuzkidurak laburtzen dira, eta, egiteko orduan, sailkapen ekonomikoa eta programako sailkapena uztartu dira, hau da, alderantziz egin da, Aurrekontu Ekonomiko eta Programen araberakoa kontuan hartuta.



1.3. Aurrekontuaren izapideak

1. Aurrekontu orokorreko organismo kide bakoitzaren aurrekontua dagokion erakundeko presidenteari bidali beharko zaio urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen.
2. Presidenteak aurrekontu orokorra formulatzen duenean, urriaren 15a baino lehen bidaliko dio Batzar Nagusiari, onartu, zuzendu edo itzuli dezan. Horrekin batera, Kontu-hartzailetzaren txostena eta eranskin zein agiri guztiak bidaliko dizkio, arauzko izapideak egin ostean (Kontuen Batzorde Berezia eta Zuzendaritza Batzordea).
3. Aurrekontu orokorra hasiera batean onartutakoan, HAMABOST EGUNEZ jendaurrean jarriko da ikusgai, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren. Epe horretan, interesdunek erreklamazioak aztertu eta aurkeztu ahal izango dituzte Batzarrean. Aurrekontua behin betiko onartuko da, epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ezean. Erreklamaziorik badago, ordea, Batzarrak HILABETEKO epea izango du ebazteko.
4. Batzarrak behin betiko onartu beharko du aurrekontu orokorra, ezarpenaren ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.
5. Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Bizkaiko Aldizkari Ofizialean txertatuko da, osagai duen aurrekontu bakoitzeko kapituluaren arabera laburtuta. Behin betiko onartutako aurrekontu orokorraren kopia bidaliko zaio foru-aldundiari, administrazio eskudunei bidali diezaien.
6. Aurrekontua dagokion ekitaldian sartuko da indarrean, aurreko idatz-zatian aurreikusitako moduan argitaratu ondoren.



2. AURREKONTU-KREDITUEN ETA ALDAKETEN ARAUBIDEA

2.1. Aurrekontu Kredituen Araubide Orokorra.

2.1.1. Kredituen izaera eta lotura juridikoa.

1. Gastuetarako kredituak Partzuergoaren Aurrekontuan edo behar bezala baimendutako aldaketetan baimendutako helburu bereziko baino ez dira erabiliko.
2. Baimendutako kredituak mugatzaileak dira, paragrafo honetan ezarritako lotura-irizpideak bete behar dituzte eta, euren bidez, ez dago hasierako aurrekontuko diru-idazpenak edo oinarri hauetako xedapenen arabera aldatutako zenbatekoak gainditzen dituen gasturik konprometitzerik edo ordaintzerik.

1.2.2. oinarriko 1. paragrafoan azaldutako Aurrekontu Ekonomiko eta Programen arabeko egitura kontuan hartuta, honako hauexek dira lotura-mailak:

1. atala. Langileria-gastuak.

Lotura kapitulu-mailakoa da.

2. atala. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.

Lotura-mailak Programa talde eta kapituluaren arlokoak dira.

3. atala. Finantza gastuak.

Lotura-mailak Programa talde eta kapituluaren arlokoak dira.

4. atala. Transferentzia arruntak.

Lotura Programa talde eta kapituluaren mailakoa da.

6. atala. Benetako inbertsioak.

Lotura artikululu-mailakoa da.



7. atala. Kapital transferentziak.

Lotura kapitulu-mailakoa da.

8. atala. Aktibo finantzarioak.

Lotura kapitulu-mailakoa da.

- 1.- Kontu-sail berriak gaitzean sortutako kredituen lotura oro har ezarritakoa izango da, betiere, Batzar Nagusiak baimenduta aurkakoa adierazten ez bada.
- 2.- Kasuan kasuko Presidentetzak, Gerentziak edo Zuzendaritzak eskatuta, Kontuhartzailetza-buruak lotura berera atxikitako kredituen birbanaketak egingo ditu, eta Kontu-hartzailetzari zein Ekonomia eta Finantza Zerbitzuen Zuzendaritzari emango dio euren berri.

Zenbait zuzendaritzatara atxikitako kredituak erasanpean badaude, presidenteak edo gerenteak baimendu beharko du birbanaketa.

2.1.2. Langile-gastuetarako kredituak.

Aurrekontuko Gastuen Egoeran zehaztutako langile-gastuetarako kredituak mugatzaileak izango dira, kredituaren zenbatekoari nahiz langile-taldeari dagokienez.

2.1.3. Konpromiso-kredituak

1. Osteko ekitaldietara luzatu beharreko gastu-konpromisoak hartu ahal izango dira. Konpromiso horiek bideratu eta kudeatzean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan ezarritakoa hartuko da kontuan.
2. Batzar Nagusiak Presidentetzari eskuordetuko dio kredituak baimentzeko eta erabiltzeko eskumena.
3. Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako zenbatekoa ez da likidatutako azken ekitaldian aitortutako eskubideen %25 baino handiagoa izango.
4. Betearazpena indarreko ekitaldian edo hurrengoan hasi beharko da.



5. Oraindik esleitu ez bada, Batzarrak baimendu egin ahal izango du kontratuetan %20ko igoera ezartzea hasieran aurreikusitako eta/edo onartutako zenbatekoaren gainetik, jatorriz aurreikusitakoa baino urtebete luzeagoa den epealdirako.
6. Kasuistika honetan, ez dira segidako traktuko konpromiso iraunkorrak kontuan hartuko (Partzuergoan, urteko kontratuak).

2.2. Aldaketen Araubidea.

2.2.1. Gastuen eta diru-sarreraren egoeretak aldaketak

1. Diru-idazpenik ez duen gastua egin behar denean eta, 2.1.1. oinarrian xedatutakoaren arabera, lotura juridikoaren maila gainditzeko duenean, aurrekontua aldatzeko espedientea bideratuko da, lege-aginduak eta arau honetan araututako berezitasunak kontuan hartuta.
2. Euren bidez finantzatu beharreko gastuen aurrekontu-kredituak ezeztatzen diren guztietan gertatuko dira diru-sarreraren aurreikuspenen baja-aldaketak. Modu berean, aurrekontuan zehaztutakoak baino diru-sarrera gutxiago egiten badira, bajagatiko aldaketak baimendu ahal izango dira gastuen egoeran, aurrekontua orekatua dela bermatu ahal izateko.
3. Egiten den lehenengo bileran, onartutako aldaketen berri eman beharko zaio Batzar Nagusiari.

2.2.2. Kreditu-transferentziak.

1. Kreditu-transferentzia gastuen egoeraren aldaketa da, eta, zenbateko guztia aldatu gabe, kredituaren zenbateko guztia edo zati bat eramaten du lotura juridiko desberdinei dagozkien kontu-sailen artean, 10/2003 Foru Arauan aurreikusitako mugak kontuan hartuta.

Kreditu-transferentziak egitean, kontu-sail berriak sortu ahal izango dira aurrekontuan.

2. Azalpen horrengatik bideratzen diren espedienteak presidenteak onartu beharko ditu, betiere, funtzio-talde bereko kontu-sailen artean egiten direnean edo bajek eta altek langile-gastuetarako kredituetan eragina dutenean. Espediente horiek betearazleak izango dira onartzen diren egunetik.



3. Funtzio-talde desberdinen artean transferitzeko espedientea onartuz gero, presidenteak berak onartu ahal izango ditu, jatorrizko eta helmugako programetan metatutako aldaketen aldea hasieran aurreikusitako diru-idazpenen %25etik gorakoa ez denean eta benetako inbertsioetarako diru-idazpenak murrizten ez direnean.

Gainerako kasuetan, Batzar Nagusiak hartuko du erabakia, eta 10/2003 Foru Arauan xedatutakoa hartu beharko du kontuan, horrelako aldaketekin zerikusia duen beste edozein gaitarako.

4. Aurreko 2. paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, benetako inbertsioetarako aurretiazko diru-idazpenak murrizten dituzten kreditu-transferentziak Batzar Nagusiak onartu beharko ditu, eta, halakoetan ere, aurreko 3. paragrafoan informazioari, erreklamazioei eta publizitateari buruz aipatutako arauak hartu beharko ditu kontuan.

2.2.3. Kreditu gehigarriak.

Presidenteak eskumena izango du, urtean metatutakoa kontuan hartuta aurrekontuaren %5 baino handiagoak ez diren kreditu gehigarriak onartzeko. Era berean, egiten den lehen bileran horren berri eman beharko dio Batzar Nagusiari.

2.2.4. Hitzarmenen Araubidea

Bere eskumenak hobeto garatzeko edo inbertsio-proiektu zehatzak batera egiteko asmoz, Partzuergoak beste toki-erakunde batzuekin, lurralde historikoekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekin edo Estatuko administrazioarekin sinatzen dituen hitzarmenen ondorioz, aurrekontu orokorren osagai den edozein aurrekontutan hasieran aurreikusitakoak ez beste fondo gehigarri batzuk jasoz gero, presidenteak kasuan kasuko ordainketa-kredituak txertatuko ditu Programetan eta egoeretan edo horretarako sortutako berrietan.

2.2.5. Kredituen txertaketa.

1. Ekitaldi arrunteko Aurrekontuan, ekitaldi itxietako Aurrekontuko kredituak sartu ahal izango dira, betiere, betebeharren betearazpenarekin loturarik ez badute.
2. Kredituok Programetan sartuko dira, eta, hurrengo ekitaldiko Aurrekontuko Gastuen Egoeran txertatuta, sartu beharreko kredituak jasotzen zituzten aurrekontuen jarraipena izango dira betearazteko orduan.



Beharrezkoa izanez gero, Programari alta emango zaio indarreko aurrekontuaren egiturari.

3. Partzuergoko presidenteak izango du kreditu-txertaketak egiteko eskumena.

2.2.6. Kredituak ematea.

1. Ekitaldian lortu baina 2015ko aurrekontuetako sarreraren orrietan aurreikusi gabeko sarrerek, gastuen orri egokian, aurrekontu kredituak sortu ahal izango dituzte.
2. Kreditu berriak edo eginkizun egitarauak eman edo dagoenekoak zabaldu ahal dituzten sarreratzat hartu ahal izateko, iturriak honako eragiketa hauek izango dira:
 - a) Egindako ekarpenak edo ekarpenerako konpromiso irmoak, beti ere, hurrenez hurrenko helburu edo xedeen barruan, beren izaera bereziagatik dauden gastuak finantzatzeko direnean.
 - b) Ondare ondasunen besterentzeak
 - c) Zerbitzugintzak
 - d) Maileguen itzulkinak
 - e) Beste ekarpen batzuk
 - f) Zorrik gabe egin eta itxitako ekitaldiei dagozkien ordainketen itzulkinak
3. Kreditua emateko eskubidea edo ekarpena egiteko konpromiso irmoa dagoela aintzatetsi behar da nahitaez.

Aribideko aurrekontuko itzulkinak gertatzen direnean, itzulkina kobratu egin behar da

